01

Desazkundea eta Ondo Bizitzea
Mugarik Gaberen apustu handia

MUGARIK GABE

MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

Garapenerako Lankidetza GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependientea den garapenean sinisten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena, urko dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugatik zabaltzen dugularik.

ARABA
"Itziar" Elkarteen Etxea - Zalburu Plaza z/g, 01003 Gasteiz
araba@mugarikgabe.org
Tel.: 945 277 385 / 656 708 617
Faxa: 945 277 385

BIZKAIA
Grupo Vicente Garamendi nº5 P.B. 48006 Bilbo
bilbao@mugarikgabe.org
Tel.: 94 415 43 07 / 94 415 48 21
Faxa: 944 166 796

GIPUZKOA
Tejeria Kalea, behea 5, 20012 Donostia
gipuzkoa@mugarikgabe.org
Tel.: 943 445 977 / Mugikorra: 656 708 598
Faxa: 943 445 977

www.mugarikgabe.org

Desazkundea eta Ondo Bizitzea Mugarik Gaberen apustu handia



creative commons



Ihintzak mendiari eskatzen dio
ezpainetatik gatza kendu dezan:

baina honi magalak mozten ari dizkiote,
ez du denborarik

Jorge Riechmann

Krisiaren konponbidea ezin da
krisia eragin duen sistematik bertatik sortu.
Einsteinek esaten zuen bezala, "arazoa sortu zuen
pentsamenduak ezin du arazoa konponduko duena izan".
Beste modu batean pentsatzera behartuak gaude,
baldin eta guk eta biosferak etorkizuna izatea nahi badugu.

Leonardo Boff

Desazkundea eta Ondo Bizitzea: Mugarik Gaberen apustu handia

Garapenerako Lankidetza erakunde bezala, MUGARIK GABEren ZEREGINA **pertsonen garapen integralerako eskubidea sustatzea da**, BAINA ez soilik garapen ekonomikoaren ikuspuntutik, baizik eta pertsonarenetik, gizonemakumeak garapen horren abiapuntu izanda; gizon eta emakumeen, eta herri desberdinen arteko berdintasuna sustatuko duen garapena, etorkizuneko belaunaldientzat jasangarria den garapena.

Garapena era global batean ulertzen dugu guk, herrialdeen arteko dependentzia eta lotura errespetatuko duena. Zentzu horretan eraldaketa politikoa, ekonomikoa, pertsonala, soziala eta egiturazkoa dugu helburu, horregatik hain zuzen ere gure lana ez da beste herrialde batzuetan proiektuak gauzatzera mugatzen. Gure lanaren bitartez eskuratzen dugun eragiteko gaitasunaren eta eskaintzen dugun hezkuntzaren helburua gure jendarte propioa eraldatzea da, jendarte justuago eta zoriontsuago bat erdiestea.

Gurea **jendarte patriarkala, kapitalista eta neoliberala da**, eta eredu hau emakumeekiko eta beste herrialdeekiko zeharo injustua dela pentsatzen dugu. Alternati-

bak bilatzen ditugu, eta Desazkundeak eta Ondo Bizitzearen filosofiak alternatiba horiek zehazten eta sustatzen lagundu gaitzaketela pentsatzen dugu, aldaketak proposatu eta egungo sistema patriarkal eta kapitalistaren alternatiba izateaz gainera, ingurumenarekiko jasangarriak diren, justizia soziala bultzatzen duten, eta pertsonen zein herrien eskubide kolektibo eta banakakoak gauzatzea ahalbidetuko duten eredu ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak sustatzeko lanean lagungarri hain zuzen ere.

Beti pentsatu izan dugu hemen dugun garapena ez dela esportagarria. Lehenik eta behin, tokiko barne prozesuekiko errespetuagatik, eta bestetik hemen dugun garapen maila munduko biztanleri guztiarengana zabaltzea ez delako posible, horretarako, eta oinatz ekologikoaren parametroei jarraituta, gure planetak dituen baliabideen halako hiru beharko genituzkeelako.

Hamar urte daramatzagu eredu kontsumista honen baitako gure bizi-eredua, kontsumo maila eta arrazoirik eza zalantzan jartzen. Hamar urte igaro dira **Elikadura Subiranotasuna** eta **Zentzuzko Kontsumoa** bezalako alternatibak sustatzen hasi ginela, bi estrategiak barne biltzen dituen ikuspegi batetik egin ere.

Azken garai hauetan bizitzen ari garen krisi ekonomikoaren eta sistema krisiaren abagune honengatik ziurrenik, Desazkundearen teoria gero eta indar handiagoa hartzen ari da Europa guztian. **Desazkundea**ren teoriarekin bat egiten du MGk, sustatzen ditugun hainbat lan ildorekin zuzenki lotuta dagoelako; Elikadura Subiranotasunarekin, Zentzukoa eta Arduratsua den Kontsumoarekin eta Herri Indigenetan egindako lanarekin hain zuzen ere.

Gainera, Mugarik Gaben pentsatzen dugu bizitzaren, ekologiaren eta ekonomiaren gaineko **ikuspegi feministak** ekarpen garrantzitsuak egin dituela dagoeneko, bai eta ikuspegi hau Desazkundean oinarritutako jendarte eredu berri bat sortzeko funtsezkoa eta ezinbestekoa dela ere.

Guretzat berriak ez diren zenbait gako planteatzen ditu Desazkundeak, eta gako hauek gure ikuspegia indartu egiten dute. Desazkundeak, errealitatearen 180 graduak jasotzeko arrain-begi objektibo bat eskaintzen digu. Eskuratzen dugun argazkiak egungo errealitatearen ikuspegi panoramiko bat ematen digu, eta gure jendartea doan amildegirantz zuzentzen du gure arreta. Sistema kapitalistaren alternatiba izango den antolakuntza eta ekonomia ereduaren alde egitea beharrezko egiten da egoera honetan. Zentzu horretan, Desazkundeak hainbat arlo jasotzen ditu, eta nahiz eta horietako batzuk ez izan proposamen berriak, arazo guztiak (ekoizpena, zeharkitzapena, banaketa, publizitatea eta kontsumoa, hondakinak) arazo bakar bat bezala hartzen dituen ikuspegi global eta holistikoa berritzailea da.

Gaur egun sistemikotzat hartu dezakegun krisia pairatzen ari gara, hau da, ez da arlokakoa ez eta aldi baterakoa, sistemaren orokortasunari eragiten baitio. Komunikabide nagusietan krisi ekonomikoaz mintzo zaizkigu, bai eta ekonomia berpizteko neurriez ere, egoera puntual eta iragankor bat balitz bezala. Baina krisi honek bizitzaren arlo guztietan du eragina, eta aspalditik pairatzen eta salatzen ari garen krisi politikoa, soziala eta ekologikoa areagotzen du. Krisialdi honek agerian uzten du sistema kapitalistak injustizia sozialak eta globalak konpontzeko duen ezintasuna, bai eta hazkundean oinarritutako sistema honen, eta gero eta larriagoa den krisi ekologikoa zein ingurumenezkoaren konponketaren arteko bateraezintasuna ere.

Desazkundeak, proiektu politiko bezala, **neurririk gabeko hazkunde ekonomiko zalantza jartzen du**. Gainera, hainbat datu eskaintzen dizkigu; jasangarriak ez diren energia kontsumoen ingurukoak, oinatz ekologikoaren ingurukoak eta abar. Baina ez digu, ohiko alderdi politiko batek egingo lukeen bezala, konponbide bat eta bakarra eskaintzen. Konponbideak, pluralean, ematen dizkigu, soluzioa ez baita bakarra, eta maila ezberdinetan, eta pertsona guztien artean aurrera atera beharrekoak dira gainera: maila pertsonalean, sozialean, politikoan...

Arazo globalei aurre egin nahi badiegu, tokikoa eta globala lotu behar ditugu eta Sare lanaren, kooperazioaren eta koordinazioaren aldeko apustua egiten jarraitu behar dugu mugimendu sozialekin. Koordinazio hau ezinbestekoa dela ikusi dugu eragite-politikoaren eta hezkuntzaren esparruan egiten dugun lana sakondu eta zabaltzeko. MGn badakigu indarrak metatzea beharrezkoa dela, bakarrik ezer gutxi egin dezakegula. Eta Desazkundeak hori erdiesten du, kolektibo eta mugimendu desberdinen arteko **indar metaketa**: ekologistak, feministak, nekazariak, ekonomia alternatiboak, GGKEak...

MGk Desazkundearen filosofia bere egin du urte askoan, izen hori erabili gabe ere. Orain, filosofia honek geldi ez egoten lagundu gaitzake, gutako bakoitzak gure bizimoduaren eta erakundea beraren berrikuspen pertsonala egiteko konpromisoa hartzera bultzatuz, beharrezko diren aldaketak sustatuz; CO2 emisioen murrizketara begira, naturarengan dugun eragina gutxitze aldera, hainbat lanarlotan egin diren proposamen berriak ezagutzera ematera, "Trantsizioan dauden hiriak" (etxebizitza, garraioa, merkatu alternatiboak, kontsumo taldeak...) bultzatzera, bai eta, nola ez, Desazkundearen logikari muzin egiten dioten instituzioen ekimenak salatzera.

Gure jendartea aztertzen badugu, bere balore eta interes matxistak sustatzen dituen sistema patriarkal eta kapitalista batean bizi garela ikusiko dugu, non merkatuaren logikak eta hazkunde ekonomiko iraunkorraren helburuak pertsonak lan indar huts bezala ustiatzen diren, patriarkatuaren erabilpen funtzionala egiten duen jendarte eredu batean hain zuzen ere (lan sari txikiagoa, doako ugalkortasun lana), zeinetan baliabide naturalak agortzen ari diren eta mundu mailan gure ingurunearekiko eta planetarekiko arazo larriak sortzen ari diren.

Hazkunde ekonomikoaren ideia eta mundu mailako garapen eredu bakarra (beti mendebaldekoon ikuspegikoa) beste jendarteetara esportagarria denaren ustea zalantzan jartzen dugu. Gure ikuspegiak aniztasuna ikusgai jartzea du hel-

buru, bai eta aniztasun hori sustatzea ere. Horregatik hain zuzen ere bat egin nahi dugu ezker mugimendua **Desazkundea**ren filosofiaren bueltan Europan zehazten ari den paradigma berriekin, eta Latinoamerikan mugimendu indigena sustatzen ari den **Ondo Bizitzea**ren filosofiarekin. Atlantikoaren bi aldeetan aldi berean garatzen ari diren bi proiektu politiko hauen bat egitea babestu nahi dugu.

Urte askotan herri indigenekin egin dugun lanaren bitartez, bizitzeko eta mundua ulertzeko beste modu anitzago batzuk ikasteko aukera izan dugu, munduaz dugun ikuspegi mendebaldarraren oso bestelakoak, jendarte justuago bat lortzeko gure ikuspuntua aberasten dutenak.

Amerikako herri indigenen irakaspenen ondorio diren Ondo Bizitzea edo Egoki Bizitzea bezalako paradigma zahar berrietan oinarrituta, garapena eta modernitatea berriz pentsatzeko apustua egiten ari dira Herri Indigenetan,. "Ondo bizitzea" filosofia herri eta nazio indigenen bizi esperientzia kolektiboetatik sortua da. Pertsonen arteko, eta pertsonen eta Naturaren arteko **elkarbizitza harmoniatsua du helburu.** Prozesu hauek deskolonizazioa dute xede, askapen prozesu bat bezala ulertuta, gure herrien pentsamenduaren, sentitzearen eta ezagutzaren emantzipazio prozesu bat hain zuzen ere. Era berean, deskolonizazioarekin batera, despatriarkalizazioa ere eman behar dela planteatzen dute, kolonizaziotik indarrean dauden desberdintasun, diskriminazio eta hierarkia sozialak desarmatzeko modu bezala. Botere harremanen eta sistemen desmuntaketa da planteatzen dena; klase eta arraza hierarkien errepikapena sustatzen duten ezagutzaren ikuskerak desmuntatzea alegia. Ikuskera hauek gainera, mundu moderno/kolonial/patriarkalean sortu ziren, eta etengabe aldatzen dira formaz. Egiazko deskolonizazio prozesu batek hierarkia sozialak eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gainditu beharko lituzke, menderatze patriarkala barne, eta horretarako beharrezkoaa izan daiteke **despatriarkalizazio** prozesu paralelo eta propioa[1]. Qamaña edo *Sumak Kausay* Ondo Bizitzea da, bizitza era harmoniatsu

1 Katu Arconada (Post)Desasrrollo, Descolonización y Cartografía del Vivir Bien

batean eta betetasunez bizitzea.

Baina Ondo Bizitzea, mendebaldeko hainbat termino Andeetako hizkuntzetara itzultzea, edo komunitateetan indioak nola bizi direnaren inguruko azalpen antropologiko (eta beraz kolonial) luze eta korapilatsuak baino askoz gehiago da. Ondo Bizitzea kultura indigenatik sortutako proiektu politiko bat da, Boliviako herriak –paradigma zibilizatzaile bezala- dagoeneko bere egin duen eraldaketa prozesurako tresna bat.

Katu Arkonadaren arabera, Ondo Bizitzearen filosofiak garapen eredu berri bat du xede, edo hobe esanda, betetasun bizimodu baten aldeko jendartearen bilaketa eta helburu hori betetzeko Estatuaren erraztea. Horretarako boterearen, izatearen eta jakintzaren deskolonizazioa eman behar da, norbanakoak zentralitatea galdu behar du komunitatearen mesedetan, eta industrializazioa eta metaketa, komunitateek euren artean eta Ama Lurrarekin elkarbizitza harmoniatsu bat garatu ahal izateko tresna hutsa izan behar dira. Ekuadorren eta Bolivian emandako esperientziak kontuan hartzeko prozesuak dira, non **Aniztasunarekiko errespetuzko** alderdi aldarrikatzaileak (arrazak, hizkuntzak, etniak, kulturak,...) –errespetutik harago-, planetaren eta pertsonen egoera hobetzeko aukera eta behar bat bezala kokatzen diren. Aniztasun hauek **nazioniztun estatuak** sortzearen inguruko eztabaida eta proposamen berriak mahai gaineratzen dituzte, bai eta naturari berezkok zaizkion eskubideak ematen dizkioten ingurugiroarekiko harreman berrien ingurukoak, enpresa erakundetzeari buruzko forma berrien ingurukoak,... Boaventura de Souza Santosen iritziz; "Nazioaniztasuna kultur-artekotasuna baino zabalagoa da. Badago kultur-artekotasuna egoterik nazioaniztasunik egon beharrik gabe, baina ez alderantziz...Eskubide kolektiboen sortze berri baten beharra dago, oinarrizko eskubideena; ura izateko eskubidea, lurrarena, elikadura subiranotasunerako eskubidea, baliabide naturalen jabe izatekoa, biodibertsitatearena, basoena eta jakintza tradizionalak izateko eskubidea. Baina nazio-aniztasun hau ez da soilik diskurtso mailakoa izan behar, baizik eta konkretua. Eta horrek esan

nahi du baliabide naturalen gaineko kontrol politikoa eta ekonomikoa egon behar dela." Patricio Carpio Benalcázarren iritziz, nazioaniztasuna demokrazia berri baten eraikuntzaren oinarri ezinbestekoa izan behar da.

Gure erakundeak Erdialdeko Amerikako emakumeen erakundeekin eta mugimendu feministarekin egiten duen lanak emakumeen ahalduntzea hartzen du ardatz ezinbesteko bezala patriarkatuaren kontra egiteko. Urte asko dira hausnarketa horrek beste batera eraman zuela gure erakundea; emakumea izate hutsagatik emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio egoerei aurre egiteko ezinbestekoa zela emakumeei autonomia pertsonala erdiesteko aukera emango zion subiranotasun pertsonala garatzea. Hausnarketa horren ondorioz, Mugarik Gabek bere lehenengo Plan Estrategikoan subiranotasun pertsonala BALIO ezinbesteko bezala zehaztu zuen. Eta horrela ulertzen genuen kontzeptu hau: **Subiranotasun pertsonala** (ahalduntzea, autonomia, autoestimua) pertsona bakoitzak bere bizitzaz erabakiak hartzeko eta bizitza hori gauzatzeko duen boterea da, barne askatasuna alegia. Subiranotasun honen gauzatzeak, bizi den testuinguru sozialean pertsona bakoitzaren bizitzaren dimentsio guztiak barne biltzen ditu; autodeterminazioaren, zoriontasunaren eta autoerrealizazioaren alde egiteko modurik egokienean bildu ere. Autoestimua ez da, besterik gabe nork bere buruaz uste ona izatea. Pertsona bakoitzak duen ekiteko gaitasunaren kontzientzia (Albert Bandura) gehi norbere duintasunaren kontzientzia da[2].

Autoestimuak pertsona bakoitzak duen boterearekiko ardura bat suposatzen du (horizontaltasuna), bai eta botere hori jendartean gauzatzea ere(militantzia). Era berean, enpatia eta nork bere buruan izan beharreko konfiantza ere esan nahi du, norberaren indarguneak eta ahulguneak aitortzea, eta beste pertsonen garapena sustatzea 002E. Beharrezkoa den jakintza eskuratzeko lan intelektual bat egitearen beharra planteatzen du, bai eta norbere ongizatea erdiesteko garapen emozionalaren alde lan egitea. Hezkuntza emozionala aipatzen dugunean, izae-

2 J.A. Marina, p, 249

raren eratzeaz ere hitz egiten ari gara[3].

Eta orain, Ondo Bizitzearen inguruan Ekuadorren egin diren hausnarketak abiapuntu hartuta, eta Alberto Acostaren hitzak aintzat hartuta, **Subiranotasuna**ren alde egiten dugun apustua zabaldu egin dezakegu, subiranotasun pertsonaletik harago, **prozesu anitzago bat** bezala ulertzeraino. Alberto Acostaren arabera, askoz garrantzitsuagoak diren bestelako subiranotasun motak daude, eta ahotan hartzeaz gainera, egin beharrekoa subiranotasun horiek gauzatzea da:

▪ Elikadura Subiranotasuna, tokiko nekazarientzat eta oro har ekonomiarentzat oso lagungarri izan daitekeena.

▪ Subiranotasun energetikoa: Nola da posible Ekuador bezalako herrialde batek, duen aberastasun hidrografikoa eta hidrokarburiferoa ikusita, elektrizitatea sortzeko petrolioaren deribatuak ondoko herrialdeetatik inportatu behar izatea? Ditugun baliabideak ikusita, gure burua hornitzeaz gainera, kanpora elektrizitatea esportatzeko ahalmena dugu, naturarengan eta komunitateengan eragin oso txikia izanda gainera.

▪ Kultur eta hezkuntza subiranotasunak ere berreskuratu behar ditugu, hauek ere funtsezko oinarria direlako. Horretarako, gure herrietan eta nazionalitateetan ditugun gaitasunak eta ahalmenak biltzea oso garrantzitsua da.

▪ Gorputzaren subiranotasuna ere aintzat hartu beharra dago. Baina ez bizi dugun testuinguru sozialetik at dagoen "bai" edo "ez" erabaki bat bezala, baizik eta hezkuntza, informazio eta prebentzio politika egoki batera jo behar dugula onartuta.

▪ Funtsezkoa da baina, subiranotasun juridikoaz mintzatzea. Pentsatzen dut subiranotasun juridikorik gabe ezingo dugula aurrera egin. Batzar Konstituziogilean eztabaidatu ziren lehenengo bost artikuluen artean adibidez, 9. Mahaian –Subiranotasunarenean- irrika handiz onartu zen Ekuadorren ez dela base edo soldadu arrotzik egongo, herri baketsua delako gurea. Eta hau, aurrera pausu ga-

3 Daniel Goleman, Inteligencia emocional (Adimen emozionala)

rrantzitsua da orain artean hitz egindakoaren zentzuan.

Aipatutako subiranotasun mota guzti hauekin batera beste batzuk ere aintzat hartu behar ditugu; hala nola estatu nazioaniztunen subiranotasuna, tokiko ekoizpenari dagokiona, zaharkitzapen programatu gabeko subiranotasun ekologikoa, banaketari dagokiona, publizitatearena eta kontsumo subiranotasuna, saldu nahi diguten horretaz harago aukeratzeko eskubidearena, eta egiazko informazio anitzerako eskubidea jasotzen duen subiranotasuna. Gure bizitzeko modua erabakitzeko ahalmena emango digun subiranotasuna azken batean, gure zoriontasuna BPGd-aren inguruko estatistika huts bat bilakatuko ez duen subiranotasuna alegia. BPGd-ak ez baitu inondik ere emakumeek egiten dituzten bizitzaren zaintze lanak islatzen, eta zoriontasunaren idealetik aldentzen da.

Galdu dugun subiranotasun ekonomikoa berreskuratu behar dugu, eta hor **subiranotasun finantzarioa** ere jasota egon behar da. Subiranotasun hori eskuratzea beharrezkoa da hazkundeari mugak jartzeko eta egun dugun aberastasuna behar bezala banatu ahal izateko. Dagoeneko frogatu da garapen ekonomikoak *per se* ez duela pertsonen arteko berdintasunik ez eta justiziarik sortzen, eta orain agerian geratu da planetarentzat ez dela jasangarria baliabideak agortu egiten ari direlako.

Pertsonen ongizatea oztopatu edo eragozten duten eta **elkarren mendekoak diren arazo globalak** egon badaudela onartu behar dugu, bai eta ikusgai jarri ere, nahiz eta arazo hauek ez diren toki guztietan modu eta intentsitate berdinean islatzen. Desberdintasun sozialak handitu egin dira eta planetako baliabideak agortu egin ditugu (petrolioa kasu), datozen belaunaldien bizimodu duin baterako aukerak mugatuz horrela (euren gurasoena baino bizi baldintza txarragoak izango dituzte).

Guzti honek Euskal Herriko, Estatu Espainiarreko eta Europa guztiko garapen

eredua zalantzan jartzera bultzatu gaitu. Gure kooperazio positiboa ez da laguntza soilera mugatuko, nahiz eta hori ere egingo dugun, enpresa multinazional handien interes "desarrollisten" aurrean, berdinen arteko kooperazioa oztopatzen eta eragozten dituzten alderdien salaketa izango dugu helburu.

Bide horretan, **antikooperazioarekin** egiten dugu topo, Hegoalde Globalak Iparralde Globalaren eskutik pairatzen dituen interferentzia negatiboen ondorioz sortzen dena. Zein da interferentzia horien logika? Hegoaldekoen "egoki bizitzea"-ren aldeko apustua eta autodeterminazioa, zein mailara arte dago Iparraldeak baldintzatua? *"Autokooperazioa da, Iparraldean sortzen den eta Hegoaldean eragin negatiboa duen ekimen oro (ekimen horien kanala, esparrua, jatorria eta xedea edozein dela ere)".* . "Beste modu batean esanda; antikooperazioa deuseztatzeak Iparralde Globalaren Desazkundearen alde borrokatzera garamatza, eta beraz, mundu mailako sistema ekonomikoaren erabateko berrantolaketa proposatzera"[4].

Bizitza eta harremanak ulertzeko modu berriak zehazten hasi behar gara; elkartasunezko ekonomia, jendarteetan emakumeek duten zeregina, "Ondo Bizitzeko denbora" eta "Gutxiagorekin hobeto bizitzeko" aukera aldarrikatzea... Deshazkunde ekonomikoaren aldeko apustua egin behar dugu planeta guztian, besteak beste ondorengo irizpideei bide emateko:

- Oinarri berriak berriz pentsatzeko eta nahi dugun jendarte ereduaren araberako ekinbideak lehenesteko.
- Lansariei, jabegoei eta bestelako behar materialei mugak jarriz hobeto bizitzeko, beste pertsonei aukerak zabalduz horrela. Gandhik esaten zuen bezala; "sinpletasun handiagoarekin bizitzen ikasi behar dugu, besteak, sinpleki, bizitzeko aukera izan dezaten".
- Balioak eta mugapenak berriz definitu behar dira erreferentzia unibertsalen

4 David Illstar

arabera, inposatutako zenbait balioen eta "unibertsaltasunen" aurreko balizko aurkakotasunak aintzat hartuta.

▪ Alderdi anitzeko alderdiak berrikustea: zuzentasuna, ekonomia, generoa, ekologia, indentitateak...

▪ Kultur aldaketa erradikala ematea; harremanetarako denbora gehiago, goxotasunezko eta kalitatezko denbora

▪ Izateagatiko gutxieneko diru-sarrerekin duintasunez bizitzeko eskubidea sustatzea

▪ Eskubideen arabera lan egitea, eta ez beharren arabera

▪ Gehiago ekoiztu beharrean, tokikoa eta ekologikoa ekoiztea eta hobeto bizitzea

▪ Elkartasun sinkronikoa eta diakronikoa, Herri guztiekin eta etorriko diren belaunaldiekin elkartasuna

▪ Erabili eta botatzekoak ez diren kontsumo ondasunen ekoizpena sustatzea

▪ Gehiengoarentzat beharrezkoak ez diren eta ingurumenarekiko erasokorrak diren azpiegiturak murriztea

▪ Enplegua banatu, lan eskubideak berdindu eta klausula sozial globala ezartzea

▪ Tokikotasuna, elikadura subiranotasuna, eta tokikoaren eta globalaren arteko lotura berreskuratzea

Mugarik Gabek Desazkundearen oinarrizko printzipioekin bat egin nahi du; S.Lautouche-k planteatutako 8 "R"-tan laburbiltzen dira printzipio horiek (gaztelaniaz "r"-a baita printzipio hauetako bakoitzaren lehenengo letra):

- Berriz pentsatu edo berriz baloratzea (gure balioak berrikustea: kooperazioa versus laguntza, prozesuak versus proiektuak, hezkuntza versus sentsibilizazioa, "antikooperazio" prozesuak aztertuta, lanaren balioa versus enplegua, aberastasunaren kontzeptua, eta abar);
- Berriz testuinguratzea (errealitatea kontzeptualizatzeko ditugun moduak



Berbalioztatzea
Berriz testuinguratzea
Berregituratzea
Birbanatzea
Berriztokikotzea
Beheratu
Berrerabiltzea
Birziklatzea
Banakako Oinarrizko
Errenta Unibertsala

aldatzea, Iparraldeko zein Hegoaldeko pobreziaren eta eskasiaren eraketa soziala agerian uztea eta abar);

- Berregituratzea (egitura ekonomikoak eta ekoizpen egiturak balio aldaketara moldatzea);
- Tokikotasuna berreskuratu (ekoizpena eta kontsumoa tokikotasunean oinarritu);
- Birbanatzea (pertsona guztiek baliabide naturaletarako eta aberastasunetarako aukera izatea);
- Murriztea (kontsumoa biosferaren ahalmenaren mailara mugatzea, "oinatz ekologikoa");
- Berrerabiltzea (kontsumismoaren aurka, iraungo duten ondasunen aldeko apustua egitea, bai eta ondasun hauen konponketaren eta mantentzearen alde);
- Birziklatzea (gure jarduera guztietan).

Desazkundearen helburua hazkundea, gure arazo guztien konponbide beza-

interdependentzia

Hegoaldeko herrietan bizi den pobrezia eta eskubide faltaren egoerak beharrezkoa egiten du kasu askotan hazkunde ekonomikoa ematea; hori dela eta Desazkundea ez da Iparraldean eta Hegoaldean era berean garatu behar. Baldintzak desberdinak dira, eta beraz garapenak ere desberdina behar du izan. Hegoaldean Desazkundea "**desgarapenaren**" bitartez gauzatu beharko litzateke, hau da, jendarte autonomoen egiazko hedapenerako oztopoak kendu (antikooperazioa) eta bizikidetzarako deshazkunde lasai eta jasangarriaren aldeko zortzi "R" horien aldeko mugimendu espiral bat sortu.

la, neurrigabeki elikatzeari uzteko beharra azpimarratzea da. Baina honek ez du esan nahi hazkundeak markatutako jendarteetan hazkunde negatibo bat garatzea proposatzen denik, hori baita hain zuzen ere egungo krisialdi ekonomikoarekin bizitzen ari garena, eta produktuen garestitzea, langabezia eta beste gauza asko eragiten ari dena. Desazkundea, proiektu politiko bat da, eta ez programa politiko bat, eta autonomoak eta aurreztaileak diren komunitateen eraikuntzan

oinarritzen da hala Hegoaldean nola Iparraldean. Komunitate hauetan ekoizpen sistema berriz planteatu beharra dago; zer, zenbat, zertarako, non eta nola ekoiztu behar dugun; bai eta banaketa, kontsumoa eta hondakinak ere.

Aberastasunaren eta zoriontasunaren kontzeptua beste balio batzuen arabera neurtu nahi badugu, herrialde bakoitzaren Barne Produktu Gordinari erreparatzea ez da nahikoa. Kooperazioaren alorrean, garapena eta aberastasuna neurtzeko adierazle bat erabiltzen da: giza garapenaren indizea edo GGI-a (PNUD, 1990).



Iturria: Sachs, W., eta T. Santarius (dirs.) (2007): Un futuro justo. Recursos limitados y justicia global, Bartzelona, Icaria. 194. orrialdea

BPGd baino adierazle osatuagoa den arren –hezkuntza edo biztanleriaren bizi-itxaropena aintzat hartzen dituelako-, GGI adierazlea ez da nahikoa arazo ekologikoa ez duelako kontuan hartzen. Happy Planet Index adierazleak (NEF, 2005) adibidez, *oinatz ekologikoa eta zoriontasun indizea jasotzen ditu, adierazle osatuagoa da beraz*[5].

5 Introducción de la sostenibilidad en la Cooperación internacional (Jasangarritasunari hitzaurrea Nazioarteko Kooperazioan)., Florent Marcellesi, Bakeaz

Adierazlea / Herrialdeak	BPG (PPA)	BPG (per cápita)	GGI	HPI
AEB	1	9	13	114
Japonia	2	16	10	75
Txina	3	40	92	20
India	4	139	134	35
Alemania	5	17	22	51
Frantzia	6	14	8	71
Erresuma Batua	7	21	21	74
Italia	8	22	18	69
Brasil	9	60	75	9
Espainia	10	25	15	76
Australia	14	11	2	102
Norvegia	24	2	1	88
Quatar	56	3	33	0
Luxenburgo	67	1	11	122
Dominikar Errepublika	74	80	90	2
Costa Rica	87	70	54	1
Islandia	101	19	3	94
Jamaika	113	84	100	3

Desazkundeak agerian jartzen du ekonomiak ez duela **ingurugiroaren ekarpena** aintzat hartzen, eta gainera, ikusezin bihurtzen duela (hala bere ustiapenari dagokionean, nola ekoizpen prozesuen ondorioz sortutako hondakinen absortsio gaitasunari dagokionean). Era berean, feminismoak agerian jartzen du ekono-



Iturria: Introducción de la sostenibilidad en la Cooperación internacional., Florent Marcellesi, Bakeaz

miak emakumeek egindako erreprodukzio lan soziala ezkutatzen duela. Horrela, ekonomiak erreprodukzio sozial eta naturala dagoenik ere ukatzen du, planetan bizitzaren sostengu direnak gutxietsiz. (Vicenç Navarro, *Lucha de clases, no de generaciones*, El Periódico de Cataluña, 07/05/21).

Zapalkuntzaren ondorioz emakumeek metatu duten esperientzia ezinbestekoa da Desazkundearen bidea egiteko. Egokitu zaien rol sozialaren ondorioz, emakumeek kolektibotasuna, elkartasuna eta ingurugiroa zein familiaren sostengua den elikaduraren kultura defendatu eta baloratzeko joera dute. Desazkundean oinarritutako jendarteetan erreprodukzio eta jasangarritasun soziala bermatzen dira, eta zentzu horretan, **emakumeen gaitasunak eta mugimendu feministak metatutako ezagutzak funtsezkoak izango dira praktika eta balio berriak unibertsalizatzeko**.

Zaintza lanak emakume eta gizonen artean partekatzea, eta bizitza laboralaren eta pertsonalaren kontziliazioa dira Desazkundeak, beste pertsonekiko eta naturarekiko abegikorra den bizi eredu berri horretan, barne hartu behar dituen erronketako batzuk, harremanak garatzeko eta stress gutxiagorekin bizitzeko denbora lortuz eta berdintasun maila handiago erdietsiz.

Ekonomia menderatzailearen logikan, ondasun materialak eta merkataritza-zerbitzuak besterik ez dira ekoizten. Desazkundeak, ekonomia feministarekin batera, erreprodukzio soziala eta naturala berriz ere lehen planoan jartzen ditu, zaintza ekonomiaren alde eginez. Biosferaren birsorkuntza gaitasunak errespetatu eta harreman-ondasunean oinarritutako ekoizpena sustatuko duen ekonomia hain zuzen ere. Hazkundearen alternatiben eraikitzan, feminismoak eta emakumeek funtsezko zeregina izango dute, eurek gabe ez baita Ondo Bizitzerik ez eta justua eta jasangarria den deshazkunderik egongo.

Gogora ekarriko ditugu "Bestelako Kooperazioa posible da" dokumentuan ze-

haztu genituen zenbait gako: **kooperazioaren berrikuspen kritiko eta autokritiko iraunkorra**, kooperazioaren azterketa eta eduki politikoa berreskuratzea desberdintasunaren egiturazko arrazoiak identifikatuz eta hauek eraldatzeko moduak zehaztuz; gure ekimenak, egiazkoak diren eraldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturala helburu duten prozesuetara bideratzea, bai eta esku hartzen duten eragile politikoen sendotzera ere, hau guzti hau mugimendu sozialekin lan eginez, eurek direlako prozesu hauetako protagonistak, eta analisietan bat egiten dugulako.

Desazkundearen eta Ondo Bizitzearen filosofiek, jendartearen eta egiten dugun lanaren berrikuspen kritikoa egiten laguntzen gaituzte, bai eta borrokatu behar dugun antikooperazioarena ere, gure lanari izaera politikoago bat emanez eta, mugimendu sozialekin batera, eraldaketa prozesuak indartzearekin batera. **Sareak eraiki eta sendotzeko** dugun interesak ekologismora, feminismora eta sozialismora garamatzate, eta hau da hain justu, etorriko diren aldaketei aurre egiteko izango dugun modu berria; naturarekiko harremanak, herrien, gizonen eta emakumeen arteko harremanak justuagoak eta bidezkoagoak izango diren jendarte eredura eramango gaituztenak.

Glosarioa

Nekazaritza organikoa edo ekologikoa: elikagai osasuntsuen ekoizpenaren irizpidea soilik jasotzen du.

Agroekologia: elikagai osasuntsuen ekoizpenaren irizpideaz gainera, bestelako alderdi batzuk ere aintzat hartzen dituena; alderdi kulturala, ekonomikoa, politikoa eta soziala. Elikadura ez da soilik osasuntsu jatea, alderdi sozial bati lotuta dago ere. Agroekologiaren printzipioak: Ingurugiroaren kontserbazioa, Labore organikoetatik eratorritako tokiko hazien erabilpena, Izurrite eta gaixotasunen autorregulazioa edo biopestiziden erabilpena, landareen eta animalien kontrol biologikoa eta erresistentzia naturala, Laborean bertan energia ziklo itxiak areagotzea, Ongarri, medeatze eta simaur organikoen erabilpena, eta Sasoiko labore osasuntsuak eta nutritiboen ekoizpena.

Genero azterketa / genero diagnostikoa: Programa, proiektu, politika eta lege atal ezberdinek

gizon eta emakumeengan duten eragina aztertzeko modu bat da. Prozesu hau, aztertzen den biztanleriaren sexuaren arabera banandutako datuen bilketarekin eta generoarekin zerikusia duen informazioa biltzearekin hasten da. Helburua, testuinguru jakin batean, emakumeen eta gizonen rolak, ardurak eta identitateak dokumentatu eta ulertzea da.

Andozentrismoa: Ikuspuntu teorikotik zein ezagutzarenetik, gizona guztiaren erdigune bezala hartzen duen munduaren eta gauzen gaineko ikuskera da andozentrismoa. Ikuspegi honek beste guztia ikusezin bilakatzen du, emakumeek jendarteari egindako ekarpenak eta lana besteak beste.

Harreman-ondasunak: Pertsonarteko izaera handia duten zerbitzu komertzialak (eta batez ere ez komertzialak); ume-zaintzatik hasi, eta heriotzarako laguntzaraino, laguntasuna eta maitasuna, zein masajea eta psikoanalisia ahaztu gabe.

Biodibertsitatea: (Ingeleseko *Biodivertsity*-ren neologismoa. Era berean grezierako βιο-, bizitza, eta latineko *diversĭtas, -ātis*, aniztasunetik eratorria) Dibertsitate biologikoa bezala ere ezaguna. *Dibertsitate Biologikoaren gaineko Nazioarteko Hitzarmena*-ren arabera, Lurreko izaki bizidunen aniztasunari, eta, milioika urtetan emandako garapen prozesu naturalen eta gizakiaren jarduera gero eta ugariagoaren ondorio diren aniztasun hori osatzen duten ereduei egiten die erreferentzia. Biodibertsitateak ekosistemen aniztasuna, eta era askotako bizitza formen konbinazioa ahalbidetzen dituzten espezie bakoitzaren ezberdintasun genetikoak barne hartzen ditu. Ezberdintasun hauek inguruarekin duten interakzioa da planetako bizitzaren oinarria.

Bioekonomia: Nicholas Georgescu-Roegen-en planteamenduen ostean, ekonomia biosferaren baitan kokatzen duen diziplina da bioekonomia, hau da, izaki BIZIDUNAREN logikara irekita dagoena.

Ondo Bizitzea: Leonardo Boff teologo brasildarraren arabera, *"ondo bizitzeak", komunitatearentzako nahikoa denaren aldeko etika bultzatzen du, eta ez soilik norbanakoak behar duenaren aldekoa.* "Ondo Bizitzea"-ren filosofiak pertsonaren gaineko ikuspegi holistikoa eta integratzailea jasotzen du, ekosistemak jasan dezakeena baino gehiago ez kontsumitzera gonbidatzen gaitu, segurtasunarekin xurgatu ezin ditzakegun hondakinen ekoizpena saihestera, eta erabilitakoak berrerabiltzera eta birziklatzera bultzatzen gaitu. Kontsumoa birziklagarria eta arina izango litzateke, eta ez litzateke eskasiarik egongo. *Ikus ALAI http://alainet.org/active/29839&lang=es*

Leonardo Ogaz-en aburuz ondo bizitzearen gaineko hiru irakurketa ezberdin daude: lehenengoak ondo bizitzea diskurtso ideologiko eta demagogiko bezala erabiltzen du egiazki neo-desarrollista den eta erauzketan oinarritzen den proiektu bat estaltzeko; bigarrenak ondo bizitzearen filosofia garapenaren ikuskera defendagarri eta aurreratu bezala kokatzen du; eta hirugarrena da irakurketarik interesgarriena egiten duena, ondo bizitzea garapen modu ez kapitalistarako bide bezala defendatzen baitu.

Sumak Kausay-ren ikuskera ez kapitalista hau globalizazioa neoliberalaren aurkakoa da, "ondo bizitze" hau modernitatearen alternatiba bezala planteatzen da, hazkunde ekonomikoaren eta beraz, indibidualismoaren alternatiba bezala, irabazi asmoen aurkakoa, kostua-etekina elkartruke sozialaren lehentasunezko arau bezala ukatzen duena. Natura ez da baliabide ekonomiko bezala hartzen, pertsonen arteko harremanen logika instrumentala apurtzen da, eta pertsonen bizitzako arlo guztien merkantilizazioa egituraketa sozialerako kaltegarria dela planteatzen du, kontsumitzailearen berekoikeriari datxekion indarkeriarekin bukatzea du xede.

Pablo Dávalos-ek "ondo bizitzea" horrela ulertzen du; "...pertsonen arteko, eta euren inguru sozial eta naturalaren arteko harreman diferente bat planteatzen

du. 'Ondo bizitzeak', pertsonek euren historiarekin eta naturarekin duten harremanerako alderdi humano, etiko eta holistiko bat proposatzen du". (Dávalos, ALAI, 2008)

http://www.kaosenlared.net/noticia/ecuador-sumak-kausay-socialismo-siglo-xxi Ecuador: Sumak Kausay eta XXI. Mendeko sozialismoa

Aldaketa klimatikoa: Aldaketa Klimatikoaren gaineko Nazio Batuen Hitzarmenak aldaketa klimatikoa terminoa pertsonek eragindako aldaketa izendatzeko baino ez du erabiltzen. "Aldaketa klimatikoa" pertsonen jarduera zuzen edo zeharkakoak eragindako klima aldaketa da, mundu mailako atmosferaren osaketa aldatu eta konparagarriak diren aurreko garaietan emandako aldakortasun naturalari gehitzen zaiona.

Kapital Emankorra eta Kapital Finantzarioa: Bi kapital mota hauek hizpide hartzen ditugunean, euren jarduera ekonomia globalean kokatzen duten enpresa sare eta konglomeratuez ari gara. Fdez. Durán-ek (2003) planteatzen duen bezala, Kapital Emankorra kontsumo ondasunen ekoizpen eta merkaturatzeari zein ondasun berrien ekoizpenari lotua dagoena da. Eta Kapital Finantzarioa ordea, lehengai eta ekoizpen elementu bezala dirua bera hartzen duena da; jarduera nagusia dirua mugitzea duena, izan bankuen bitartez -kredituak eta hipotekak-, edo produktu finantzario modernoenen bidez -pentsio-fondoak, inbertsio-fondoak, arrisku handiko fondoak, dibisen merkatuak...- edo mundu mailako balore burtsetan inbertituz eta espekulatuz. Kapital finantzario honen ezaugarri nagusiak bere globaltasuna eta lurraldetasun eza dira, eta horren ondorioz, kapital mota honek ez du lurralde jakin bati lotutako botere politikoaren aurrean erantzuteko beharrik.

Merkaturatze-zirkuitu/kanal laburra: Merkaturatze eredu honetan, ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean, gehienez, bitartekari bakarra dago. Salmenta zuzena izango da batere bitartekaririk ez badago. Hona hemen zenbait adibide:

ekoizleen merkatua, kontsumo taldeak, etxean jasotzeko kutxen egitura, ustiategien salmenta, tokiko produktuen denda espezializatuak, jatetxeak eta jatetxe kolektiboak.

Kontziliazioa: Emakumeen eta gizonen denbora pertsonalaren, laboralaren, familiarraren eta aisialdi zein komunitate denboraren harmonizazioa. Kontziliazioaren helburuetako bat, emakumeek lan esparruan duten presentzia sustatzea da, bai eta gizonak familia ardurak euren gain hartzera animatzea eta kontzientziatzea ere, emakumeek eta gizonek, zuzentasunez, oinarrizko eskubide sozialak izan ditzaten. Horretarako, erantzunkidetasun dinamika eta neurri espezifikoak planteatzen dira. http://www.recursosmujeres.org/contenido_tema.php?temaid=1

Kontsumismoa: Alderdi ezberdinak barne biltzen ditu kontsumismoa kontzeptuak; alde batetik beharrezkotzat jotzen ez diren ondasunen metaketa, erosketa edo kontsumoari dagokiona, eta bestetik, aberastasunaren metaketa lehiakorra, talde sozial bateko status eta prestigio ikur bezala kokatzen duen sistema ekonomikoa eta politikoari dagokiona. Jendarte garaikide honetako eskala handiko kontsumoak arriskuan jartzen ditu baliabide naturalak eta oreka ekologikoa.

Kontsumismoak, ondasunen neurririk gabeko eskuratze edo erosketa bezala ulertuta, bere ondoriozko eraginak eta ondorioak idealizatzen ditu kontsumoaren praktika, gogobetetze pertsonalarekin lotuz, baita zoriontasun pertsonalarekin lotuz ere.

Kontsumoa: (gastatu edo suntsitu esan nahi duen latineko *cosumere*-tik eratorria) kontsumitzearen edo gastatzearen jarduera eta efektua da kontsumoa, izan produktuak, bizitza iragankorra duen bestelako jeneroa, edo ondasunak zein zerbitzuak, hala nola energia. Oinarrizko edo bigarren mailako beharrizanak asetzeko produktu eta zerbitzuak erabiltzea da kontsumoa. Kontsumo handiak kontsumismoa sortu du, bai eta kontsumo-jendartea ere.

Kontsumo arduratsua ("zentzuzko kontsumoa" bezala ere ezaguna): erakunde ekologistek, sozialek eta politikoek defendatzen dute kontzeptu hau, erakunde hauek uste baitute, pertsonek, ingurugiroarekin eta jendarte-berdintasunarekin abegikorrak diren merkatu aukeren alde egin eta euren egiazko beharrizanetara moldatuko diren kontsumo ohiturak izan behar dituztela.

Aipatutako erakundeetako batzuk dira hauek; Ekologistak Martxan, zenbait alderdi berde, eta batez ere ekologia sozialaren alde egiten duten erakunde eta norbanakoak. Gainera, Desazkundearena bezalako beste korronte batzuk uste dute kontsumo mailaren eta ustiatutako baliabideen murrizketa beharrezkoa eta saihestezina dela planeta ez dadin kolapsatu.

Korronte hauen iritziz, kontsumitzea ez da soilik beharrizan bat asetzea, kontsumitutako produktua edo ondasuna ahalbidetzen duten prozesu ekonomiko, sozial eta ingurugirokoak babestea ere esan nahi baitu. Horregatik planteatzen dute garrantzitsua dela merkatuan dauden aukeretatik bat hautatzerako orduan eragin edo ondorio negatibo txikiena izan duenaren alde egitea.

Esther Vivas idazle eta ekintzailearen iritziz, "kontsumitzaileok kontsumo arduratsu baten alde egiteko aukera dugu, tokiko merkatuetan eta auzoko saltokietan erosketak eginez. Baina gure aukera pertsonaletik harago, oso garrantzitsua da era kolektibo batean boikot kanpainetan parte hartuz eragitea, bai eta inguruko ekoizleekin zuzeneko salmentarako harremanak sortzen dituzten produktu ekologikoen kontsumo kooperatibetan parte hartzea ere. Era berean, beharrezkoa da bestelako mundua aldarrikatzen duena bezalako mugimenduekin lan egitea, ekologistekin, feministekin... Borroka eta eraldaketa sozial eta politiko globalaren ikuspuntutik"..

Kontsumo-jendartea edo *masa kontsumoko jendartea* ekonomian eta soziologian erabiltzen den termino bat da, industri garapen kapitalistaren garai aurrera-

tuaren ondorio, ondasun eta zerbitzuak –masiboki ekoizten direlako - masiboki kontsumitzen dituen jendarte eredua izendatzeko erabiltzen dena.

Kontsumo-jendartearen kontzeptua merkatu-ekonomiarenarekin zuzenki lotua dago, eta beraz, kapitalismoarekin. Merkatu-ekonomiatzat hartzen dugu, kapitalen, produktuen eta pertsonen zirkulazio librearen bitartez –estatuen eskuhartzerik gabe- eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka bilatzen duen ekonomia.

Kontra-produktibitatea: Sistema baten edo instituzio baten muga batetik aurrerako hazkundeak sortutako efektu negatiboa da.

Bizikidetza: Bizikidetza, jatorriz elkarrekin bizitzea eta batez ere elkarrekin jatea bazen ere, kolektibitate bat osatzen duten pertsona eta taldeen arteko hartueman harmonikoak izateko, eta arrotza dena jasotzeko gai den kolektibotasunaren ezaugarria da Ivan Illich-en arabera.

Cornucopianoa (espiritua): esanahi literala du, oparotasunaren adarrean sinisten duena da. Eta beraz, zientzian, aurrerapenean eta teknikan fede itsua duena.

Hazkundea: Jendarte kapitalistan hazkunde ekonomikoarekin baino ez da lotzen, eta Oean Gadrey-k neurtzeko modua ere proposatzen du; "BPGd-ren garapena, hau da, ordainduzko lanak ekoizten dituen eta saltzen diren, edo dirua balio duten ondasun eta zerbitzu guztien bolumenaren progresioa".

Elikagai-krisia: Elikagaien prezioa biztanleriaren zati handi baten eskura ez egoteraino garestitzen deneko mundu mailako egoera. 2008ko elikagai-krisiaren ondorioz, mundu mailan elikagai gabe zeuden pertsonen kopurua 100 milioitan handitu zen. Elikagaien prezio igoera honen arrazoi nagusiak nekazaritzarako erregaiak eta elikagaien espekulazioa burtsan izan ziren.

Krisi ekologikoa: Krisi ekologikoa, edo ingurumen krisia ematen da, espezie edo populazio jakin baten ingurunean, espezie edo populazio horren iraunkortasuna kolokan jartzen duen aldaketa larriak gertatzen direnean. Kausa asko egon daitezke, hala nola: aldaketa abiotiko bat (tenperatura igoera edo euri eskasia adibidez), harraparitzaren presioa edo gainpopulazioa. Kasu hauetan, ingurune jakin baten kalitatea degradatu egiten da ingurune horretan bizi den espeziearen beharrizanei dagokionean.

Kuznets-en kurba: Kuznets-en kurba, Simon Kuznets-ek egindako hipotesiaren irudikapen grafiko bat da. Hipotesi horren arabera, herrialde baten desberdintasun ekonomikoa handitu egiten da herrialde hori garapenean dagoen bitartean, baina denbora jakin bat igarota, eta bataz besteko diru-sarrerak erdietsi direnean, kurba hau txikiagotuz doa.

Slow kultura: "Slow" hitzak "astiro" esan nahi du ingelesez. Slow kulturak bi adierazpide nagusi ditu:

Slow Mugimendua: Pertsonen jarduerak lasaitzearen aldeko lana sustatzen duen kultur korrontea da. Bere tiraniaren mendeko izan beharrean, denboraren gaineko kontrola hartzea proposatzen du. Horretarako, lehentasuna eman behar zaie pertsonen garapena sustatzen duten jarduerei, denbora aurreztera zuzenduta dauden teknologien erabilpenaren eta, paseatzea, edo beste pertsona batzuekin bazkaria partekatzea bezalako jarduerez gozatzeko beharrezkoa den denbora hartzearen arteko oreka bilatuz. Mugimendu honetako kideek uste dute, teknologiak lana, elikagaien ekoizpena eta banaketa, eta bestelako giza-jarduerak bizkortu baditzake ere, bizitzako gauza garrantzitsuak ez direla inolaz ere bizkortu behar. Slow mugimendua Erromako Piazza di Spagnan McDonald's saltoki bat jartzearen aurkako protestekin batera abiatu zen, eta Slow Food erakundea sortuz.

Slow Food: Italian sortutako nazioarteko mugimendu honek dastamenaren estandarizazioaren aurka egiten du, bai eta ezagutza eta plazera lotzen dituen dastamenaren filosofia baten aldeko lana egin ere. Kontinente guztietan garatzen du tokiko ohitura gastronomikoen aldeko lana, bertako produktu eta laborantza metodoekiko errespetua gordez. Slow Food-aren ikurra, barraskilo bat da, mantsotasunaren ezaugarri.

Desazkundea: Desazkundea, pertsonen arteko oreka harreman berri bat ezartzeko helburua duen pentsamendu politiko, ekonomiko eta sozialeko korronte bat da. Horretarako, ekoizpen ekonomikoa modu erregular eta kontrolatu batean murriztea proposatzen du. Liberalismoak sustatzen duen hazkunde eredua ukatu, eta kontsumoaren eta ekoizpenaren murrizketa proposatzen du. Pentsamendu honek, ekoizpen ekonomikoa baliabide naturalen murrizketarekin eta inguruguiroaren suntsiketarekin lotzen du, egungo ekoizpen mailak dagoeneko planetaren birsorkuntza gaitasuna gainditu duela iritzita. Bizi eredu moderno honek ongizatea eragiteko duen ahalmena ere zalantzan jartzen du Desazkundeak. Erronka, gutxiagorekin hobeto bizitzea izango litzateke. Serge Latouche-ren arabera: *Desazkundearen kontsigna, batez ere neurri eta muga gabe haztearen ideia albo batera uztea da, [...] Zehaztasunera jota, egokiagoa litzateke "acrecimiento" terminoa erabiltzea (ahazkundea), "ateismoa" erabiltzen dugun bezalaxe.*.[1] Horregatik erabiltzen da ere "hazkunde-eragozleak" izendapena. Erronka beraz, sistemaren aldaketa erradikala ekarriko lukeen bioekonomia eta postgarapenaren gaineko hausnarketa mugimendu zabalago batean kokatzen da.

Desarrollismoa: Ideologia eta programa politiko-ekonomiko bat da desarrollismoa, herrialde baten garapenerako eta bertako biztanleen ongizaterako aldez aurretikako baldintza bezala ahalik eta azpiegitura gehien izatea planteatzen duena; direla azpiegitura hidrauliko erraldoiak, garraiorakoak, komunikaziorakoak, energia ekoizpenera zuzendutakoak edo oinarrizko ekipamendu eta materialetara bideratutakoak. Normalean azpiegitura erraldoi hauek fondo pu-

blikoekin finantzatzen dira, ustiapen pribatuaren esku uzteko gero. Arrazoi hori dela eta, mota honetako politikez ondokoa esaten da: "gastuak jendarteratzen dituzte eta etekinak pribatizatu". Obra lan erraldoi hauen eragina jasotzen duten herri eta komunitateen ingurugiro-eskubideak, edo eskubide kultural eta sozioekonomikoak, garapen plan hauen mendekoak izan ohi dira.

Pertsonen garapena: Prozesu honetan, jendarteak bere herritarren bizi baldintzak hobetzen ditu hiritar horien oinarrizko beharrizanak eta beharrizan osagarriak asetzeko beharrezko diren ondasunen hazkundea emanez, eta eurek guztien giza-eskubideak errespetatuko diren inguru baten sorrera sustatuz. Pertsona batek, berak izan edo egin nahi duen hori izateko edo egiteko bere ingurunean dituen aukera kopurua da. Gero eta aukera gehiago, gero eta pertsonen garapen handiagoa, gero eta aukera gutxiago, gero eta pertsonen garapen txikiagoa. Pertsonen Garapena, pertsonek, euren bizitza garatzen duten inguruan duten bizi-kalitatea neurtzeko modua da ere, bai eta herrialde edo eskualde bat sailkatzeko ezinbesteko aldagaia ere. 2010an 169 herrialdeetatik balorapen onena jaso zuen herrialdea Norvegia izan zen, txarrena ordea Zimbawe.

Garapen jasangarria: Brundtland, I-ren informearen arabera (1987), garapen jasangarria "etorriko diren belaunaldiek euren beharrizanak asetzeko izango duten aukera kolokan jarri gabe, garaian garaiko beharrizanak asetzen dituen garapen eredua da". Beste modu batean esanda, "baliabideen ustiapena, inbertsioen norabidea, eta aldaketa teknikoak eta instituzionalak egoera harmoniatsu batean dauden aldaketa prozesua da".

Deskontsumoa (edo downshifting-a): Concise Oxford Dictionnary-ren arabera, "to downshift" "egungo bizimodua horren estresagarria ez den beste bategatik aldatzea" da. Beste modu batean esanda, kontsumismoaren aurrean, gutxiago lan egin, ekoiztu, gastatu eta kontsumitzea da deskontsumoa.

Zor ekologikoa: Munduko herri guztiek, eragindako ingurugiroaren suntsipena dela eta, euren oinarrizko eskubideak mugatuak dituzte. Ikuspuntu honetatik, ingurune garbi eta seguru baterako eskubidea, ukatu ezin daitekeen pertsonaren oinarrizko eskubidea da, arraza, klase, etnia edo sistema ekonomiko globalean duen posizioa edozein dela ere. Ingurunearen degradazioa eta herrialde industrializatuek aurrera daramaten planetako baliabideen ustiaketa beraz, ez da zilegi, eta giza-eskubideen urraketa bat da beste herrien bizitza eta bizi-kalitaterako aukerak ahultzen dituelako.

Iparraldeak, bere bizimodua mantendu ahal izateko, hegoaldearen mendeko izaten jarraitzen du. Lurra ezin badute euren zerriak eta behiak bazkatzeko erabili, ezingo dute orain artean bezala jaten jarraitu. Eta berdina gertatzen da euren fruta eta barazki askorekin. Hala ere, arazoa ez da munduan erein daitekeen lurraren banaketa desorekatua soilik, baizik eta monolaborantzak (esportaziorako nekazaritzak), kalte ekologikoei dagokionean, dituen ondorioak ere.

Disbalioa: Ivan Illich-ek ezarritako hitza da; eta "irizpide ekonomikoaren arabera baloratu ezin daitekeen galera" adierazten du. Ekonomistek behar bezala baloratu ezin dezaketen galera alegia. Adibidez; "ez dago modurik, mugikortasunari dagokionean autoak duen monopolioagatik bere oinen erabilera efektiboa galdu duen pertsona bati gertatzen zaiona baloratzeko. Pertsonari ezartzen zaion mugapena ez da urriak diren objektuetako bat ".

Generoaren araberako lanaren banaketa: Gizonek eta emakumeek egiten dituzten lan ezberdinei eta ematen zaien balio desberdinari egiten dio erreferentzia. Kultura eta momentu historiko bakoitzaren araberakoa da sexuen araberako lanaren banaketa, eta denborarekin edota kanpo baldintzen eraginez aldatu egin daiteke. Generoaren araberako lanaren banaketa egon badagoela aintzat hartzen ez bada, lanaren antolaketaren inguruko ikusmolde okerrak onartu ditzakegu, eta gerta liteke emakumeen lana ikusezina bihurtzea (Hegoa).

Ekobalantzea: bizitza zikloaren azterketa (ACV, Analisis del ciclo de la vida) bezala ere ezaguna: "Produktu edo zerbitzu jakin baten bizitza zikloaren ordezkatze sistemaren mugetatik barrura sartu eta kanpora ateratzen diren materia eta energia fluxuen balantze kuantifikatu bat da" (Ives Cochet).

Ekokapitalismoa: Kontzeptu honek, lurraren ekosistemarekin abegikorra den kapitalismoari egiten dio erreferentzia. Eko-bateragarria den garapen kapitalistaren hurbilketaren erdigunean ekoeraginkortasuna eta win-win estrategiak topatzen ditugu (alde guztiak ateratzen dira irabazten). Estrategia hauek defenditzen ditu Entreprises pour l'environnement elkarte frantsesak (elkarte honek ingurumenarekin kezkatuta dauden berrogei enpresa inguru biltzen ditu), eta "Ekologia ez da ideologia" erabiltzen du lelotzat. "Industri-ekologiaren" korronte honek, Kuznets kurban oinarrituta, hurbilketa honetan sakontzeko ahalegina egin du.

Ekoeraginkortasuna: garapen teknikoari esker, kontsumitutako produktuen ekoizpenean erabiltzen diren sargaiak aurreztea (lehengaiak, energia eta bitartekaritza-produktuak). Aurrezteak gainera, eragin ekologikoa eta baliabide naturalen ustiaketa-intentsitatea progresiboki txikitu dezake. Horrela, euro bat ekoizteko behar den intentsitate energetikoa 1991tik hona bataz beste % 0,7 gutxitu da Europan. Ekoeraginkortasun hau ordea, "errebote efektua"-ri lotuta dago (ikus beherago)

Ekofeminismoa: Ekofeminismoaren sorrera eragin zuten feminismoa eta ekologiaren arteko lehenengo loturak hirurogeita hamarreko hamarkadako utopia literario feministan dute jatorria. Utopia horietan emakumeen aurkako zapalkuntzarik gabeko jendartea definitzen da, hau da, ekologikoa, deszentralizatua, ez hierarkikoa eta ez militarizatua izateaz gainera, barne demokrazia duena eta ingurumenarekin abegikorragoak diren teknologiak erabiltzen dituen jendartea eraikitzea dakarrena.

Ekologia: Ekologia (grezierako «οἶκος» *oikos*="etxe", eta «λόγος» *logos* ="ezagutza") ekosistemen biologia da (Margalef, 1998, 2. orri.). Izaki bizidunen multzoa, euren ingurunea, kokapena, eta kopurua aztertzeaz gainera, organismoen eta euren ingurumenaren interakzioak ezaugarri horietan duten eragina aztertzen du. Inguruneak ezaugarri fisikoak jasotzen ditu; hau da, klima eta geologia bezalako tokiko faktore abiotikoen, eta habitat hori partekatzen duten beste organismoen (faktore biotikoak) batuketa da.

Ekologiaren ikuspegi integratzaileak planteatzen du, organismoen kokapenean eta kopuruan eragina duten prozesuen ikerketa zientifikoa dela ekologia, bai eta organismoen arteko harremanak, eta energia eta materia fluxuen eraldaketa ere.

Ekoizpen-ekonomia eta Erreprodukzio-Ekonomia: Ondasun materialak ekoizten dituen prozesu ekonomikoaren partea da Ekoizpen-ekonomia. Erreprodukzio-ekonomia aldiz, ekoizpena aurrera ateratzeko beharrezkoak diren alderdiei dagokien partea da; ekoizpenak behar duen lan indarra eta ingurune soziala sortu, mantendu eta erreproduzitzen duena. Erreprodukzio-ekonomiak, espazio sozialetan –izan espazio hauek pribatuak edo publikoak- egiten den lan guztia –afektuarekin eta zaintzarekin zerikusia dutenak barne- jasotzen du –etxekolana adibidez-, eta lan hori da hain zuzen ere guri egunero lanera joateko aukera ematen diguna. Gainera, subjektibitatea sortzen duten prozesu sozial guztiak -jendartea kohesionatzen duten horiek- eta aldi berean ekoizpen-ekonomiaren funtzionamendurako beharrezkoak diren ezagutza eta sormena sortzen dutenak jasotzen ditu Erreprodukzio-ekonomiak. Bien arteko muga ez da batere argia, eta erabiltzen den adierazleetako bat, izugarri zakarra, monetarizazioa da: ordainduzko jarduerak –ekoizpenekoak- eta ordaintzen ez direnak –erreproduktiboak.

Modernitate-ondokoari buruzko eta "industria-ondoko" garaiari buruzko hausnarketek –hala nola teoria ekonomiko feministek- horren artifiziala den banaketa horrekin apurtzen dute, agerian uzten dutelako ekonomia moderno glo-

bala enpresa arlotik eta monetarizatutako jardueretatik urruti dauden bestelako prozesuen mendekoa dela. Merkatu-logikari erantzuten ez dioten, eta espazio sozialetan ematen diren bizikidetza eta kooperazio sareetatik zuzen zuzenean sortzen diren prozesuak dira aipatutakoak.

Zentzu horretan, lan immateriala ekoizpen-ekonomiaren eta erreprodukzio-ekonomiaren arteko interfasean kokatzen da, eta lan hori monetaren arabera zenbatzea zeharo arbitrarioa da.

Ekosistemak: Ekosistema bat, izaki bizidunen talde batek (biozenosia) eta euren arteko harremanak garatzen dituzten toki fisikoak (biotopo) osatzen duten sistema naturala da. Elkarren mendekoak ez diren organismoek partekatzen duten habitata da ekosistema. Ekosistema ezberdinek, sistemaren baitan organismo ezberdinek duten elkar mendekotasunaren erakusle diren kate sortak osatu ohi dituzte.

Ekosozialismoa: sozialismo ekologikoa; hau da, biosferaren birsorkuntza ahalmenarekin bat datorrena.

Errebote efektua: "kontsumoa handitzea eta teknologiaren erabilpenaren mugapenen murrizketa; mugapen hauek monetari dagokionak izan daitezke, tenporalak, sozialak, fisikoak, ahaleginarekin lotutakoak, arriskuarekin, erakunde mailakoak...]. Abiadura Handiko Trena azkarrago doa, horrela urrunago eta sarriago mugituko gara. Etxea isolatuago dago, eta horrela dirua aurreztu eta bigarren auto bat erosiko dugu. Bonbilla fluokonpaktoek elektrizitate gutxiago gastatzen dute, eta piztuta uzten ditugu. Internetek informaziorako sarbidea desmaterializatzen du, paper gehiago inprimatzen dugu. Autopista gehiago dago, trafikoa handitzen da... Teknologia eraginkorrek kontsumoaren handitzea sustatzen dute, eta kontsumitutakoaren kopuruaren igoeragatik, irabaziak gainkonpentsatzen dira" (Franscois Schneider).

Ahalduntzea: Biejing-eko (Pekin) Mundu mailako Emakumeen Konferentzian sortu zen termino hau, eta emakumeek erabaki eta botere guneetan duten parte hartzearen handitzeari egiten dio erreferentzia. Gaur egun termino honek bestelako alderdi bat ere jorratzen du: emakumeek banaka zein taldean duten boterearen kontzientzia hartzearena alegia, emakumeek pertsona bezala duten duintasunaren berreskuratzearekin lotura duen alderdia hain zuzen ere. (Palabras para la Igualdad (Berdintasunerako hitzak). Biblioteca Básica Vecinal). Kasu honetan boterea terminoak ez du beste pertsonen gaineko boterea adierazten, baizik eta "egoteko, elkarbanatzeko, eragiteko eta jendartearen beste parte bat gehiago izateko boterea".

Ekitatea: Genero ekitateak gizon eta emakumeak tratatzeko orduan izan beharreko justizia irizpideari egiten dio erreferentzia, bakoitzaren behar propioen arabera beti ere. Kontzeptu hau abiapuntu hartuta, trataera berdinak edo ezberdinak jaso daitezke, baina eskubide, etekin, betebehar eta aukerei dagokionean baliokideak. Garapen lanaren testuinguruan, genero-ekitatearen helburuetako bat, emakumeek historikoki eta sozialki bizi izan dituzten desabantailak konpentsatzeko neurriak hartzea da. http://www.ifad.org/gender/glossary.htm

Enpresa Transnazionalak (ET edo ETN): Nazio Batuek ofizialki onartutako izendapenaren arabera (Latinoamerikan gehien erabiltzen dena da), herrialde bat baino gehiagoan ekoizten duten enpresak dira "transnazionalak".

Enpresa Multinazionala: Nazio Batuek onartutako izendapenaren arabera, jabetza Estatu bat baino gehiagoren artean partekatzen dutenak soilik dira enpresa multinazionalak. Gobernuen arteko akordioen ondorio dira enpresa mota hauek, eta logikoki, gutxienez jabekide diren herrialdetan garatzen dute euren jarduera. Enpresa mota hauwk ez ditugu transnazionalekin nahastu behar. Adibide bat jartzearren; McDonalds-ek bere jarduna herrialde askotan garatzeak ez du esan nahi enpresa "multinazional" bat denik, Estatu Batuetako enpresa transnazionala

delako. Horretaz gainera, enpresa multinazional hauek beste estatu batzuetan filialak izan ditzakete, eta alderdi horri dagokion euren jarduna transnazionalena bezala garatu.

Entropia: Energiaren degradazio prozesu atzeraezina izendatzeko erabiltzen da entropia terminoa. Industriak erabilitako energia mekanikoa batez ere beroan transformatzen da; energia kaloriko hau desagertzen denean, ezin da berriz ere energia mekaniko bihurtu bestelako energia ekarpen bat egin gabe. 1824an Sadi Carnotek asmatutako printzipio hau ekonomian erabili zuen Nicholas Georgescu-Roegenek, Bioekonomiaren aitak.

Nazioaniztun Estatua: Jatorrizko Herri Indigena eta nekazarien proposamena da, tokiko identitateetan oinarritutako identitate nazional bakarra sortzeko helburua duena, oinarrietako lurralde autonomietatik abiatutako unitate nazionala, eta botere politikoaren, ekonomikoaren eta administratiboaren deszentralizazio eredu bat eraikitzeko helburua duena alegia. Herri indigena bakoitzak bere burua jatorrizko nazio bezala aitortzean oinarritutako Lurralde berregituraketa du xede. Juridikoki, Giza-eskubideen Nazioarteko Hitzarmenetan aitortzen diren eskubide kolektiboetan oinarritzen da, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169 Hitzarmena kasu. Proposamen hau parte hartzailea eta irekia da, eta ondorengo printzipioek zuzentzen dute: osagarritasun politikoa, soziala eta ideologikoa; aniztasun juridikoa; baliabide naturalen etekinen bidezko birbanaketa; naturarekiko osagarritasuna; elkartasuna; eta ustelkeriarekin amaitzeko printzipio etiko eta morala.

Kanpo-eragina: Prezio sistemak harremana baldintzatu gabe, bere ongizatean eragin negatiboa edo positiboa duen eragile ekonomikoen arteko harremana (normalean ekoizleak kontsumitzailearengan). Harreman mota hau "merkatu-akatsak" (market failures) delakoaren parte da.

Erauzketan oinarritutakoa: Baliabide naturalen neurri gabeko erauzketan oi-

narritzen den jendartea.

Pobreziaren feminizazioa: Herrialde gehienetan gertatzen den egoerari izena ematen dion fenomenoa da, pobrezian bizi den Planetako biztanleriaren zati handiena emakumeek osatzen dutela ikusgai jartzen duena.

Feminizidioa/Femizidioa, Emakumeen aurkako genozidioa izendatzeko erabiltzen da termino hau, esanahi politikoa duen kontzeptu bilakatzen duena. Matxismoaren eta misoginiaren giro ideologiko eta sozialetan oinarritutako praktika sozialei bide ematen dieten baldintza historikoak ematen direnean gertatzen da feminizidioa; emakumeen aurkako indarkeria normalizatuko egoeretan hain zuzen ere. Egoera honen ondorioz, emakumeen integritatearen aurkako atentatuak ematen dira, euren osasunaren, askatasunaren eta oro har bizitzaren aurkako erasoak. Mundu guztiak aitortzen du ekintza hauek bereziki ankerrak direla, emakumeenganako gorrotoaren ondoriozko krimenak". (Marcela Lagarde)

Feminismoa: Garapen iraunkorrean dagoen pentsamendu korronte honek bi sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna defenditzen du. Mundua, botere harremanak, egitura sozialak eta bi sexuen arteko harremanak ulertzeko modu ezberdin bat da feminismoa. Mende honetan, sistema eta balio sozialetan aldaketa kopuru handiena eragin duen, eta instituzioak euren politika sozial eta ekonomikoak aldatzera bultzatu dituen errealitateari begiratzeko modu berria da feminismoa, errealitateari emakumeen ikuspuntutik begiratzeko modua alegia. Simone de Beauvoirrek feminismoa bakarka bizitzeko eta kolektiboki borrokatzeko modua dela pentsatzen zuen. Gaur egun feminismoa bi korronte nagusitan banatzen da: berdintasun-feminismoa eta desberdintasun-feminismoa.

Generoa: Jendarteak sexu bakoitzari ezartzen dizkion (eta hauek propio bezala onartzen dituzten), eta kulturalki zein sozialki eraikiak izan diren ezaugarriak dira generoa; rol sortak, harremanak, nortasun-ezaugarriak, jarrerak, portaerak,

balioak, botere erlatiboa eta eragina. Sexu-biologikoa ezaugarri genetiko eta anatomikoek zehazten dute, generoa aldiz, eskuratutako eta ikasitako identitatea da, kultura joeraren arabera –izan kultur joera berdinaren baitan edo kultur joera ezberdinen artean- asko aldatzen dena. Generoa erlaziozkoa da, ez baitie soilik emakume eta gizonei erreferentzia egiten, baizik eta bi sexuen arteko harremanari (hau da, emakumeengandik espero, sustatu eta onartzen dena, gizonengandik espero, sustatu eta onartzen denarekin zuzenki lotua dago, eta alderantziz. Horregatik aztertu beharra dago harreman hauek osagarritasunean, mendekotasunean eta ekitatean sustengatzen ote diren). Genero harremanak dinamikoak dira, pertsonen arteko interakzioaren ondorioz aldagarriak. Exploring Concepts of Gender and Health. Ottawa: Health Canada, 2003 http://www.hc-sc.gc.ca/english/women/exploringconcepts.htm

Glokala eta Glokalizazioa globalizazioa eta lokalizazioa terminoen arteko nahasketatik sortu zen, 1980ko hamarkadan Japonen emandako merkataritza jardueren ondorioz. Kontzeptua "dochakuka" termino japoniarrean du jatorria (dochaku-tik deklinatua; "bere lurrean bizi dena"). Erreferentzia ugarik termino honen sortzaile eta hedatzailea Ulrich Beck izan zela aipatzen badute ere, ideia hau aditzera eman zuen lehenengo autorea Roland Robertson izan zen. Definizioa; Ikuspegi ekonomiko eta kultural batetik definitu dezakegu glokalizazioa: Termino ekonomiko bezala, glokalizazioa da "globalki pentsatu eta lokalki ekiteko" prest dagoen eta gai den pertsona, taldea, saila, unitatea, erakundea edo komunitatea. Kontzeptu honek, inguru bakoitzeko ezaugarrietara egokitzera behartzen du enpresa, tokiko eskaeraren arabera ekoizpen ezberdinak sustatzera.

Antonio Bolivar Granadako Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolaketa Katedradunaren arabera, glokalizazioa, kulturalki, tokiko elementu partikularrak mundu mailakoekin nahastearen ondorio da. Mundu mailan muga ekonomikoak, politikoak eta sozialak progresiboki gainditzen ari diren honetan, barrera kulturalak gero eta gehiago dira, globalizazio kulturalaren aurrean pertsonek euren

tradizioak defendatzen dituztelako.

Kontsumo taldeak (KT): aurreko kontzeptuak gogoan izanda, modu osasuntsu eta seguru batean kontsumitzeko biltzen diren pertsona taldeak sortu dira. Kontsumitzen dituzten produktuak zuzenean eskatzen dizkiote ekoizleari, bitartekariak saihestuz eta produktuagatik bidezko prezioa ordainduta. Agroekologia eta bidezko merkataritza bezalako printzipioetan oinarrituta beti ere. Talde mota asko dago eta edozein auzotan topa ditzakegu horrelako esperientziak.

Oinatz ekologikoa: "Biztanle talde jakin batek kontsumitzen dituen baliabideak sortzeko eta sortutako hondakinak asimilatzeko behar izan den zoru eta ozeano produktiboaren azalera da biztanle talde horrek eragiten duen oinatz ekologikoa" (Mathis Wackernagel)

Berdintasuna: Genero-berdintasuna pertsona guztien postulatuaren parte da, izan gizon edo emakumeak, pertsona guztiek dute euren gaitasunak garatzeko eta euren bidea aukeratzeko askatasuna, inolako estereotipok, genero-rol zorrotzek edo aurreiritzik mugatu gabe. Genero-berdintasunak esan nahi du emakumeen eta gizonen portaera, jomuga eta behar espezifikoak kontuan hartu direla eta modu berdinean baloratuak eta lagunduak izan direla. Genero-berdintasunak ez du esan nahi gizon eta emakumeak gauza bera izan behar direla, baizik eta euren eskubideak, ardurak eta aukerak ez direla gizon edo emakume jaiotzearen araberakoak izango. ABC of Women Worker's Rights and Gender Equality, Geneva: ILO, 2000.

Genero-interes estrategikoak (genero beharrizan praktikoei dagokienean): Genero Beharrizan Praktikoak (GBPak), lanaren sexu-bereizketagatik emakumeei ezartzen zaizkien rolak betetzeko beharraren ondorioz sortzen diren beharrizanak dira. GBPetako asko epe laburrekoak dira, eta zenbait bizi baldintzaren gabeziarekin lotzen dira, hala nola ura eskuratzeko aukera, osasuna edo enplegua.

Beharrizan hauetan indarra egiteak ez du lanaren sexu-banaketa, ez eta emakumeen mendekotasun soziala ere zalantzan jartzen. Genero Interes Estrategikoak (GIIak); emakumeek euren mendekotasun posiziotik identifikatzen dituzten interesak dira. Interes hauek emakumeen kontzientzia hartze gero eta handiagoaren isla dira; gizonen mendekotasun egitura eta pribilegio zaharrak sakrosainduak ez izateaz gainera, herentzia genetikoaren ondoriozkoak izan ez, eta inposizio sozial hutsak direnaren –eta beraz aldagarriak direnaren- kontzientzia hartzearena hain zuzen ere. Horrela, GIIak agertzen dira emakumeek jendartean duten posizioa zalantzan jarri, eta lanaren sexu-banaketari, botereari eta kontrolari, zein irizpide tradizionalen arabera ezarritako arau eta rolei aurre egiten dietenean. Testuinguruaren arabera GIIak asko aldatzen dira, eta mota askotako gaiak planteatu ditzakete; hala nola eskubide legalak, etxeko indarkeria, lanaren sexu-banaketa, haurren zaintzaren eta etxeko lan kargaren arintzea, lan-sari berdintasuna, instituzionalizatuak dauden diskriminazio espresioen deuseztatzea, berdintasun politikoaren ezarpena eta emakumeek euren gorputzen gainean izan beharreko kontrola (DSR, amatasunaren gaineko erabakiak hartzeko eskubidea). Eskaera hauek asebetetzea emakumeen ahalduntzearekin batera gertatuko da, epe luzera begira. Vainio-Mattila, A. Navigating Gender: A framework and a tool for participatory development. Helsinki: Finland Ministry for Foreign Affairs, 1999. http://global.finland.fi/julkaisut/taustat/nav_gender/glossary.htm

Giza Garapenaren Indizea (GGI): Nazio Batuen Garapenerako Programak, herrialde bakoitzeko pertsonen garapen maila neurtzeko sortutako adierazlea da GGIa. Hiru irizpideek osatzen duten adierazle sozial estatistiko batean oinarritzen da:

- Bizitza luze eta osasuntsua: jaiotzerakoan dugun bizi itxaropenaren araberakoa.
- Hezkuntza: helduen alfabetatze tasaren, eta lehen, bigarren eta goi mailako hezkuntzako matrikulazio tasa gordinaren, bai eta derrigorrezko hezkunt-

zaren iraupen urteen araberakoa.

- Bizitza duinaren maila: BPGd per capitaren Erosteko Ahalmenaren Parekidetasunaren (PPA) arabera nazioarteko dolarretan neurtua.

Generoaren Garapen Indizea (GGI) eta Generoaren Sustapen Indizea (GSI): Generoaren Garapen Indizeak (GGI-k) Giza Garapenaren Indizearen (GGI) ezaugarri berdinak neurtzen ditu: jaiotzerakoan dugun bizi itxaropena, hezkuntza maila eta BPG per capita, baina era berean emakume eta gizonen erdieste-desberdintasuna aintzat hartzen du. Indizeak sexuaren arabera banakatuak eta parez pare jarrita daude, gizon eta emakumeen erdieste-mailen arteko aldeak ikusgai jartzen dituelarik. Oinarrizko giza-garapenaren esparruan genero ezberdintasuna handiagoa den heinean, herrialde horretako Genero Garapen Indizea txikiagoa da Giza Garapenerako Indizea aldean. Generoaren Sustapen Indizeak (GSIak) jendartearen hiru esparrutan emakumeek dituzten aukerak neurtzen ditu: I. Parte hartzea eta botere politikoa (aulki politikoen ehunekoaren arabera neurtua); II: Parte hartze ekonomikoa eta erabakiak hartzeko boterea (kargu legegileen, funtzionario eta exekutiboen, eta postu profesional eta teknikoen ehunekoen araberakoa); III. Baliabide ekonomikoen gaineko boterea (emakumeen eta gizonen lanaren ondoriozko diru-sarreren zenbatespena).

Happy Planet Indizea: (ingelesez: *Happy Planet Index-a)* New Economics Foundation-ek argitara emandako adierazle alternatibo bat da.[1] Indizea bizi-itxaropenean, zoriontasunaren pertzepzio subjektiboan eta oinatz ekologikoan oinarritzen da.

200an egindako Happy Planet Index-aren (HPI) bigarren mundu mailako konpilazioa, munduko biztanleriaren % 99 ordezkatzen duten 143 herrialdetan jasotako datuetan oinarritua dago.

Indizearen buru diren hamaika herrialdeetatik hamar Iberoamerikakoak dira.

Hauek dira lehenengo hamaikak: Costa Rica, Errepublika Dominikarra, Jamaika, Guatemala, Vietnam , Kolonbia, Kuba, El Salvador, Brasil, Honduras eta Nikaragua.[2] Puntu gehien duen mendebaldeko herrialdea Herbehereak dira.]. Estatu Batuek kalifikazio bereziki txikia dute, 143tik 114. postuan daude.

Matxismoa: Emakumeenganako desbalorizazio jarrera. Genero arteko harremanak antolatzeko modu partikular bati erantzuten dio. gizontasuna, indarra eta gizonek duten etxeko kontuekiko desinteresa sustatzeak ezaugarritzen du. Besteekiko boterearen banaketa desberdinak bi generoen arteko harremanaren asimetria du ondorio. (Palabras para la Igualdad. Berdintasunerako Hitzak. Biblioteca Básica Vecinal)

Maskulinitatea/maskulinismoa: Jendarteak gizonei egozten dien ezaugarria da maskulinitatea. Interpretazio tradizional eta patriarkalak gizonari, besteak beste, ezaugarri hauek egozten dizkio; adorea, erabakitzeko ahalmena, ekintzailetasuna, lehiakortasuna, nagusitasuna, autoritatea, indarra, sendotasuna, zakarkeria, independentzia eta beste asko, ezaugarri femeninoei baino balio handiagoa emanez beti ere. Jendarteak, bere orokortasunean, gizonei kulturalki, sozialki eta historikoki inposatzen dizkion ezaugarriak jasotzen ditu, eurek baitira ustez hierarkia rol, eta nagusitasun politiko eta ekonomiko jakin bat bete behar dutenak. Gizona izateak, nor bere buruarentzat izatea esan nahi du. Gizonak ezaugarri kopuru handia biltzen du, gure munduan gehien baloratzen diren ezaugarriak gainera. Gizona izatearen, bere esanahiaren eta ondorioen gaineko euren esperientziak eta bizipenak elkarbanatzeko xedez gizonek eurek sortutako hausnarketa guneek osatzen dute maskulinitatea. Hausnarketa eta pentsaera hauek gorputz ideologiko bat sortu dute, eta gorputz horren gaineko ikuspegiek hainbat mugimendu eta ildo moral zein filosofiko, bai eta ideia guzti horiek praktikara eramateko politika, ekintza eta estrategia sorta ere. (Xabier Odriozola, 2008).

Misoginia: Emakumeekiko beldurra eta gorrotoa. Emakumeenganako –izan

emakume batenganako edo genero guztiarenganako- gutxieste, trufatze, bazterketa, indarkeria edo zapalkuntza ekintza oro da misoginia, izan ekintza hau sotila edo ez, izan agerikoa edo ez. (Fundación mujeres)

Gehienezko Errendimendu jasangarria (maximum sustanaible yield): Bere birsorkuntza gaitasunari eragin gabe, garai bakoitzean ustiatu daitekeen gehienezko baliabide kopurua da (adibideak; basoak, arrantza).

Ingurumena: Izaki bizidunei eragiten dion eta pertsonen zein jendartearen bizi baldintzak baldintzatzen dituen ingurunea da ingurumena. Momentu eta leku jakin batean indarrean dauden, eta pertsonaren zein etorkizuneko belaunaldien bizitzan eragiten duten balio natural, sozial eta kulturalen multzoa da. Hau da, inguruneak ez du soilik bizitza garatzen den espazioa jasotzen, baizik eta bertako izaki bizidunak, objektuak, ura, zorua, airea eta euren arteko harremanak ere, bai eta ukiezinak diren bestelako elementuak ere, kultura kasu. Ingurumenaren Mundu mailako Eguna ekainaren 5ean ospatzen da.

Beharrizanak eta asegarriak: Beharrizanei buruz hitz egiteko Max Neef-ek Pertsonen Neurriko Garapena (1993) testuan proposatzen duen eskema jarraituko dugu. Autore honen arabera, "pertsonen oinarrizko beharrizanak iraunkorrak dira", garai historiko eta kultur joera guztietan berdinak. Gainera, Max Neef-en iritziz, "beharrizan hauek ez dira gabeziak soilik, baizik eta, aldi berean, pertsonen banakako zein taldeko potentzialtasunak ere". Bederatzi kategorietan taldekatu daitezke. Aldea beharrizan horiek asetzeko moduan dago. Max Neef-ek beharra, beharraren asegarria eta ondasun ekonomikoak bereizten ditu: "Beharrizanak asegarrien bitartez adierazteko modua aldatu egin da historian zehar, kulturen, erreferente sozialen, bizitza estrategien, baldintza ekonomikoen eta ingurumenarekiko harremanen arabera aldatu ere. Adierazpen forma hauek hala maila objektiboa nola subjektiboa jasotzen dute, baina pertsonen bizitzeko moduaren egoera historikoak bustitzen ditu. Horregatik asegarriak beharrizanen

parte historikoa dira, eta ondasun ekonomikoak bere materializazioa".

Jevons-en paradoxa: Jevons-en paradoxa horrela izendatzen da William Stanley Jevons-ek asmatu zuelako. Paradoxak sustengatzen duenez, hobekuntza teknologikoak baliabide bat ustiatzeko eraginkortasuna handitzen badu ere, litekeena da baliabide horren kontsumoa handitzea gutxitu beharrean. Zehatzago esateko, Jevons-ek paradoxak defenditzen du energia eraginkortasun handiagoko teknologiak erabiltzeak, azkenerako energia kontsumo totala handitu dezakeela.

Aitatasun/Amatasun arduratsuak: Aitatasun/amatasun arduratsuak maila ezberdinak jasotzen ditu; emakume eta gizonek euren egoeraren arabera zenbat haur eta noiz izan nahi dituzten erabakitzeko arduratik hasita –eta ondorioz, euren eskubide erreproduktiboak gauzatzetik-, haurrak izatea erabaki ondoren haur horiei ondasun materialak eta afektiboak emateko ardura partekaturaino.

Patriarkatua: Antolaketa sozialaren sistema honetan botere postu garrantzitsuenak soilik edo nagusiki gizonen esku daude. Alicia Puleok bi patriarkatu mota bereizten ditu; hertsadura patriarkatuak "emakumeei baimendu eta debekatzen zaien hori ohiturazko lege edo arau zigortzaileen eta indarkeriazkoen bitartez zehazten dutenak", eta baimendutako patriarkatuak. Kasu honetan legearen aurrean berdintasun formala ematen da, "herrialde mendebaldar garaikideak dira hauek eta , -Puleoren arabera-, nagusiki komunikabideen bitartez hedatzen diren mito boteretsuen eta irudi erakargarrien bidez rol sexual jakin batzuk sustatzen dituzte".

Genero ikuspegia: Lan ikuspegi honek generoaren teorian du oinarria; emakumeen eta gizonen egoera bien arteko harremanaren ezaugarrien arabera aztertu, eta proposamen eraldatzaile justuago eta bidezkoago baten arabera, botere harremanak kolokan jartzen dituen ikuspegia hain zuzen ere. Hegoa

Petrolioaren koska: Petrolioaren koska (edo petrolio-zenita) petrolio erauzketa tasa maximo globala erdiesten den momentua da, momentu horretatik aurrera ekoizpen tasa beherakada terminal batean sartzen da. Kontzeptu hau bi tasetan oinarritzen da; banakako petrolio-putzuetan jasotako ekoizpen-tasan, eta lotura duten petrolio-putzu sistema baten gaineko tasa-konbinatuan. Kontzeptu honen arabera, petrolio-putzu baten erantsitako ekoizpen-tasa denborarekin batera esponentzialki hazten da "petroleo-koska" delakora heltzen den arte. Hortik aurrera behera egiten du—batzuetan azkar-, agortzen den arte. Kontzeptu honek Hubbert-en kurban du jatorria, eta frogatu denez, kontzeptu hau berdin aplika dakioke nazio zehatz bateko barne-ekoizpen tasari, zein mundu mailako petrolio-ekoizpen tasari.

Genero-politika: Emakumeen eta gizonen arteko harremanak eta eragite-esparru guztietan dituzten posizio sozial ezberdinak aintzat hartuko dituzten, eta helburu bezala gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna izango duten politikak. Genero politika jakin bat garatzeko testuingurua aztertu behar da lehenik, testuinguru konkretu horretan berdintasuna lortzeko dauden oztopoak identifikatu ondorenz, eta azkenik, egindako azterketaren emaitzak kontuan hartuta, egoki diren neurriak landu. Genero politika jakin batek beraz, genero azterketa bat behar du. Emakume politiken aldean, genero-politiketan helburua ez da soilik gaur egun arte gizonek menderatutako esparruetan emakumeen sarbidea erraztea, baizik eta bestelako jendarte eredu baten alde lan egitea pertsonen arteko berdintasuna ekarriko duten balioei bide emanez.

Postautismoa: Postautismoa edo mugimendu ekonomiko postautista 2000 urtean sortu zen La Sorbonan, Frantziako ekonomia fakultateetako ikasleek, jasotzen ari ziren hezkuntzarekin ados ez zeudela eta, sustatu zuten mugimendu hau. Ekonomia Zientzien esparruan biltzen den pentsamendu kritiko guztia jasotzen du mugimendu honek, ikuspegi sozialdemokrata eta keynesianotik antikapitalistara, bai eta ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoa ere.

Espainian mugimendu hau, *Ekonomia Kritiko baten aldeko Mugimendua* bezala, edo *Ekonomia Kritikoa* bezala da ezaguna.

Bidezko prezioa: Prezio mota honek, ekoizpen kostuak eta ekoizlearen behar ekonomikoak asetzeaz gainera, zehaztutako prezioarekin bat datorren kalitatezko produktua eskaintzen dio kontsumitzaileari.

Produktibismoa: Produktibismoak zentzu ezberdina hartzen du marxismoari edo kapitalismoari dagokionean. Horrela, marxismoaren kasuan, ekoizpen indarren garapen-logikaren araberako ongizate maila asetzeko egiten den ekoizpen ahalmenaren zehaztu gabeko igoera da, jabetza pribatua ezeztatuz eta ekoizpenindar horiek langileriaren esku utziz. Kapitalismoaren kasuan aldiz, ekoizpen indarren funtzionamendu oztopoak deuseztatu egiten dira, merkatuaren logikari erantzunez.

Birlokalizatzea: Agerikoa denez, tokiko ekoizpena bultzatzea da, tokian toki aurreztutako baliabideekin finantzatutako tokiko enpresek tokiko biztanleen beharrak asetzeko produktuak ekoiztea.

Erresilientzia: (latineko *resilio, resilire* aditzetik eratorria; "atzerantz salto egin, errebotatu") Gaur egungo sistema-krisialdiaren testuinguru honetan, eta Desazkundearen ikuspuntutik, erresilientzia da jendarte bezala aldaketei eta antolaketa politiko eta sozialeko eredu berriei egokitzeko ahalmena. Testuinguruaren araberakoa da:

- Ingeniaritzan, erresilientzia (ingeniaritza), material bati aplikatutako tentsioari ondorioz elastikoki deformatzen denean gordetzen duen energia kopurua bolumen-unitateetan neurtzeko magnitudea da.
- Ekologian aldiz, komunitateek asaldurak jasateko duten gaitasuna da erresilientzia.

- Psikologian ostera, pertsonek edo taldeek emozio-mina gainditzeko eta euren bizitzarekin jarraitzeko duten gaitasuna da erresilietzia.

Ardura Sozial Korporatiboa (ASK): Europako Komisioaren Liburu Berdeak jasotzen du gaur artean onartuena den ASK-ren inguruko definizioa: "enpresek, euren merkataritza-eragiketetan eta euren solaskideekiko harremanetan ingurumenarekiko ardura eta ardura soziala borondatez txertatzea da. Beste autore batzuk nahiago dute Enpresaren Ardura Soziala (EAS) terminoa, edozein tamainako enpresetan erabili daitekeela uste baitute. ASK-aren garapen handia eman da hamarkada honetan, baina egia bada ere hitz politak eta erretorika etengabe erabili direla enpresen komunikazio eta marketin estrategietan, oso eragin txikia izan du enpresa kudeaketaren esparruan. Konpainia multinazionalak, euren enpresa-jardunak aldatzeko ahalegina egin beharrean, jendarteak jardun hauetaz duen ikuspuntua aldatzen saiatu dira. Informazio zehatz eta argigarri gehiago eskuratzeko, Ecologista aldizkariko artikulu hau kontsultatu dezakezue.

http://docs.google.com/fileview?id=0B1NlfdPhS4oeNDZkMGNkNjAtZGE5OS00NGMwLWI1MjktY2RlN2FiYmMzODc2&hl=es

Iraultza Berdea: Potentzia handietako aldeaniztun instituzioek eta enpresa transnazionalek, mundu mailako nekazaritza modernizatuz gosearekin amaitzeko ezarri duten Nekazaritza-elikaduraren gaineko programa politikoa da. Programa hau, kapitalari eta sargai petrokimikoei dagokionean oso zorrotzak diren pakete teknogikoak transferitzean oinarritzen zen, eta nahiz eta ekoizpen-maila altua eskuratu –lan faktoreari dagokionean-, azkenerako gosearen arazoa handitu eta dependentzia eta kutsadura handitzea eragin zuen, bai eta ohiko nekazaritza sistemen desagerpena ere.

Elikadura segurtasuna: FAO-ren arabera: "Norbanakoaren, etxearen, nazioaren eta mundu mailako Elikadura segurtasuna ematen da, momentu oro, pertsona guztiek, bizitza aktibo eta osasuntsu bat garatzeko dituzten elikadura-beharri-

zanak eta lehentasunak asetzeko elikadura seguru eta elikagarri nahikoa eskuratzeko modu fisikoa eta baliabide ekonomikoak dituztenean". Kontzeptu honek baina, ez du produktu hauek nork eta nola ekoizten dituen jasotzen. Elikadura subiranotasunak (ikus beherago) baino ikuspegi asistentzialistagoa du, ez horren eraldatzailea; ez ditu nekazaritza politikak barne hartzen, ez eta jendartearengan zein ingumenean dituen eragin sozialak ere.

Sexismoa: Teoria honek, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun biologikoaren ondoriozko emakumeen gutxiagotasuna du oinarri. Emakumeak gizonak baino gutxiago diren ordena sinbolikoaren eraikuntzak, sexu baten bestearekiko mendekotasuna eragiten duten jarrera eta jokabide estereotipatuak daudela esan nahi du. Zenbait autorek matxismoaren eta sexismoaren arteko ezberdintasunak zehazten dituzte; matxismoa jarrera inkontziente bat dela -eta beraz pertsona bati bere jarrera matxista dela esaten zaionean jarrera horiek lagatzeko hautua egin dezakeela-, eta sexismoak emakumeen gizonenganako mendekotasuna laguntzen duen jarrera kontziente bat adierazten duela. http://www.nodo50.org/mujeresred/spip.php?article1301

Sexua-generoa sistema: Sistema honek azaltzen du nola pertsona bakoitzak jaiotzean duen sexu diferentzian oinarrituta (arra edo emea), sexu bakoitzarentzako sinesmen, balio, ohitura, arau, praktika, aukera eta jokabide sozialen multzo oso bat sortzen dela. Sexua, ezaugarri sexual anatomikoari dagokion ezberdintasuna da, eta generoa ordea garaiaren eta jendarte ereduaren arabera aldatzen den eraketa-sozial bat.

Elikadura subiranotasuna: Herriek, herrialdeek eta Estatu taldeek, euren nekazaritza eta abeltzaintza, eta elikagai-ekoizpen politikak -hirugarren herrialdeei "dumping"ik ezarri gabe- zehazteko duten eskubidea da. Elikagaien ekoizpena eta kontsumoa tokiko komunitateen beharrizanen arabera antolatzea da, tokiko ekoizpenari eta kontsumoari lehentasuna emanez. Elikadura subiranotasunak ez

du nazioarteko merkataritza ukatzen; biztanleriak metodo eta elikagai ez-kaltegarriak, elikagarriak eta ekologikoki jasangarriak eskuratzeko dituen eskubideak bermatzeko beharrezko diren merkataritza politikak eta jarduerak formulatzeko aukera defendatu baizik.

Elikadura Subiranotasuna eta Elikadura Segurtasuna ez dira gauza bera.

Gainhazkundea: ekoizpena "arrazoizkoa" den mailatik gora handitzea da, horren ondoriozkoak dira gainekoizpena eta gainkontsumoa.

Jasangarritasuna/sostengarritasuna:
Espezie jakin batek bere inguruko baliabideekin gordetzen duen oreka da. Baliabide bat bere birsorkuntza gaitasuna baino sarriago ustiatzean denean ere erabiltzen da kontzeptu hau. Pertsonen oparotasunaren ikuspegitik, eta 1987ko Brundtland txostenaren arabera, jasangarritasuna, egungo belaunaldiak bere beharrizanak -etorkizuneko belaunaldiek euren beharrizanak asetzeko izango duten gaitasuna sakrifikatu gabe- asetzea da.

Baliabideak agortu gabe, eta ekosistema horretatik kanpora hondakinik bidali gabe, pertsona eta bestelako izaki bizidunei elikagaiak eta aterpea emateko gai den ekosistema da habitat sostengarri bat. Horrela, habitat horrek etorkizunean aurrera jarrai dezake kanpo baliabideen beharrik gabe. Habitat sostengarri horrek garapen naturala izan dezake, edo pertsonek eragindakoa (berrezarritako biosferak bezala).

Genero zeharkakotasuna [Gender Mainstreaming]:
Genero ikuspegiaren zeharkakotatze/integrazio prozesuak, edozein esparru edo mailatan garatutako edozein ekimen, lege, programa edo politikak gizon eta emakumeen bizitzan izango duen eragina banaka aztertzen dela esan nahi du. Estrategia bat da azken finean; emakumeen zein gizonen interesek, ardurek eta

esperientziek bizitzako arlo guztietan (politikoan, ekonomikoan eta sozialetan) garatu behar diren politika eta programen diseinu, ezarpen, eta ebaluazioan unitate bakar bat osatu dezaten, gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna ez dadin birsortu ez eta betikotu. Agreed Conclusions on Gender Mainstreaming. Geneva: United Nations Economic and Social Council, 1997. http://www.un.org/documents/ecosoc/docs/1997/e1997-66.htm